


Lola Indigo, nire idoloa

Miriam Doblas Muñoz, beste modu batean esanda, Lola Indigo da. Madrilén jaio zen 1992ko apirilaren 1ean, gaur egun 32 urte ditu. Abeslari eta dantzari oso famatua da Espainian. Horrez gain, nire abeslari gustukoena ere bada. Baina noiztik da famatua? Zergatik ote da nire abeslari gustukoena?

Neska hau ez zen hasieratik abeslari, dantza-irakasle bezala hasi zen. 2017 *Operación Triunfo* programan ateraz zen, eta lehenengo kanporatua izan zen gainera. Hortik aurrera bere bizitza hobetzen hasi zen, lehen abestia aterabaitzuen: *Ya no quiero ná*. Pixkanaka,



gero eta famatuago bihurtu zen. Izan ere, urte berean ondorengo abesti hauek ere aterazituen: *El mundo entero*, *Bachata*, *Mujer Bruja*, etab. Handik bi urtera etorri ziren artista honen urrengo lanak, 2019an: *El humo*, *Fuerte*, *Me quedo*, *Sensación de vivir*, *Lola Bunny* eta *Luna*. Bere lanak etenik gabe jarraitu zuen, 2020an *4 besos*, *Cómo te va*, *Sentiría*, *Trendy* eta *La tiritita* aterazituen eta. 2021ean bere bigarren albuma aterazuen: *La niña*. Horren ondoren, 2022an, bere lehenengo dokumentala grabatu zuen, eta tartean beste abesti asko ere egin zituen. Ez hori bakarrik, bere hirugarren albuma ere kaleratu zuen: *El dragón*.

Ez dago esan beharrik neska honen ibilbidea ez dela erraza izan, baina asko saiatu ondoren bere ametsak lortzen ari da. Uste dut edonorentzat dela eredu, oso langilea izan delako eta lan asko egin duelako lortu du lortu duen guztia.

Nire abeslari gustukoena ere bada, zeren oso pertsona langile, alai eta pertsona ona da. Horregatik eta nire abesti gustukoena berak egina izateagatik da nire abeslari gustukoena. Hasieran, *Casanova* abestiarengatik hasi nintzen bere abestiak entzuten, nire gaur egungo abeslari gustukoena izatera iritsi arte. Beraz, zuek ere gonbidatzen zaituztet Lola Indigoren abestiren bat entzutera, agian, zuen abeslari gustukoena ere bihurtu daiteke.

Olaia Garcia
2024ko urriaren 14a
DBH 2.D